



Bilboko  
Elizbarrutia  
DIÓCESIS DE BILBAO

# JESUSEN BERPIZKUNDEA

## 7. ERANSKINA

ERAGILE, KATEKISTA, GURASOENTZAT

Delegación de Anuncio y Catequesis  
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza

## JESUS BERPIZTUA BETIRAKO BIZI DA <sup>1</sup>

**"Jesusek, erdian jarririk, agurtu zituen esanez: Bakea zuei"**

### I. Sarrera

Jesusen berpizkundera da gure kristau fedearen funtsezko osagaia. Ez da erraza berpizkunderaz hitz egitea, ezin gara zientziaz baliatu azaltzeko, ezin dugu frogatu, baina "erakusgarri" da Jesusen Berpizkundera gurutzeko heriotzaren ostean Jesus bizidunarekin topo egin zuten gizon eta emakume ikasle haiengan eragin zituen aldaketa eta ondorioak. Agerian da, zalantzarik gabe, berpiztuarenganako fedetik gure munduan bizia emateko eta helarazteko indar berezia aurkitu duen makina bat gizon eta emakumeren emate eta konpromisozko bizi-tza.

### II. Azalpena

Paulo apostoluak dioenez, Kristo piztu ez balitz, funtsik gabea zatekeen gure fedea. Elizak ez zukeen salbazioaren Berri Ona izango munduari iragartzeko. Gure fedea ez zukeen zentzurik izango. Ez genukeen benetako behin betiko itxaropenik gizakiari eskaintzeko. Jesusen Berpizkundera baizik ez du oinarritzen eta zentzuz betetzen gure kristau fedea.



Ikasleek, beldurrez, gurutzean hildako maisuaren porrotaren eraginez sakabanaturik, etsirik, ez zuten itxaropenerako arrazoirik. Huraxe izango zatekeen Jesusen "mugimenduaren" azkena. Hala ere, egun gutxiren buruan, ikasleak, berriz elkartu ondoren, kalera ateratzen dira judu eta jentilen belarrietara erokeria den zerbait oihukatzen, beren bizia arriskuan jartzeko bada ere: "Jainkoak Jesus piztu egin du". "Bizi da!". Berpiztuarenganako fedea, elkarte berriaren hazi bihurtu da.

Hasierako sinestedun haiek bizi izan zuten esperientzia ezagutzen saiatuko gara, Jesusen berpizkundera oinarritutako beren fede sendo eta ziurraren inguruan gehiago jakiteko eta guretzat, kristauontzat, Kristo berpiztuarengan sinesteak zer esan nahi duen hobeto ulertzeko.

Lehenik eta behin, zera ikus dezakegu: gizon eta emakume hauek zailtasun ugari dutela gertaera ustekabeko eta harrigarri hori aditzera emateko eta ulertarazteko. Jesus, gurutziltzatua, beraiek hilda ikusi dutena, orain biziz beterik agertu zaie. Berpizkundera ezin da ez "erakutsi" ezta "frogatu" ere. Ez zen historikoki egiaztatzeko moduko gertaera izan. Ikasleek bizidun agertzen zaien eta beren buruak aldatu egiten dituen berpiztuarekin izandako elkartzak aipatzen dituzte.

Berpiztuarekin elkartu zireneko esperientzia kontatzen dute eta hainbat zehaztasun emanez, gainera: Jesus berpiztuak agurtu egiten ditu, bakea ematen die, bedeinkatu, deitu, irakatsi, kontsolatu, misiora bidaltzen ditu.

Eta esperientzia hau azaltzeko, honako esamoldeak errepikatzen dituzte: "nahita topo egiten du", "agertu egiten da", "berriz ere beretarrekin elkartzen da". Bategite horietan, ikasleak ez ezik Jesus da aurrea hartzen duena, berea da ekimena.

Jesusen lehen jarraitzaileentzat, Berpizkundera Hari gertatu zaion zerbait da, hau da, gurutziltzatuarengan gertatu den zerbait, eta ez ikasleen irudipena. Beraientzat, egundoko gertakaria da, nahaste eta etsipenetik atera ditu eta Jesusekiko atxikimendua sustraitik aldatu du.



### III. Gertaera eraldatzaile eta misiorako dei da

Jesusen mezua onartzeko prestasun larregi ez zuten gizon eta emakume haiek, uste osoz iragarriko dute aurrerantzean ebanjelioaren berri ona. Jesus gurutzean josi zutenean bere ondoan egoteko gai izan ez ziren gizon koldar haiek beren bizia arriskuan jarriko dute orain Gurutziltzatuaren auziaren alde egiteko. Jesusekin edozer gerta liteke. Bere adorea helarazten die eta beren tristura eta beldurretatik askatzen ditu.

Ikasleek ebanjelioa hots egiteko dei bezala bizi dute berpiztuarekiko elkartzea. Jesusen Aitarengandik jaso duen misio bera da ikasleena, luzatu eta eguneratu egin behar dute. Orain, berpiztuaren esperientzia honen lekuko dira.

Hasierako kristauen ustez, Jesusen berpizkundean Jainkoak berak esku-hartu du. Bere indarraz heriotzatik askatu du bere biziaren osotasunean sartzeko. Jainkoak Jesusi bere bizia emanaz esku-hartzen du. Dena zentzugabeko heriotzan galtzen dela dirudienean, Jainkoa "bizi-emaila" agertzen zaigu.

### IV. Bere berpizteak guztiongan eragiten du

Hasierako kristauak uste sendoa dute: Jesusen berpizkundean, Jainkoak bere bizi eta mezua oso-osorik berresten duela. Jesusen berpizkundeak argi frogatzen duenez, Jainkoa Harekin zegoen. Jesusen jarraitzaileek beste zerbait ere ikusten dute: Haren berpizkundeak itxaropenerako atea irekitzen diola gizadi osoari, dei egiten zaigula Jainkoarengan betirako bizitzera.

### V. Bibliako kontaketa (Lukas 24, 1-12)

#### Hilobia hutsik

Asteko lehen egunean, goizean goiz joan ziren emakumeak hilobira, prestaturiko ukenduak berekin zituztela. Hilobi-sarrerako harria biratua aurkitu zuten. Sartu ziren, baina ez zuten Jesus Jaunaren gorpua aurkitu. Zer pentsa ez zekitela zeuden, eta, hartan, bi gizaseme agertu zitzaizkien jantzi distiratsuz. Emakumeak ahuspez lurrera erori ziren ikaraz. Baina gizaseme haiek esan zieten:

«Zergatik zabilzate hildakoen artean, bizi denaren bila? Ez dago hemen, piztua da. Gogora ezazue zer esan zizuen oraindik Galilean zegoela: alegia, Gizonaren Semea bekatarien eskuetara eman behar zutela eta gurutziltzatu, eta hirugarren egunean piztu egin behar zuela».



Oroitu ziren haiek Jesusen hitzez, eta, hilobitik itzulirik, gertatutako guztiaren berri eman zieten Hamaikiei eta gainerako ikasleei. Magdalako Maria, Joana eta Maria Santiagorena ziren emakumeok; hauekin batera joandako beste emakumeek ere gauza bera esaten zieten apostoluei. Baina apostoluek zorakeriatzat hartu zituzten berriok, eta ez zieten sinetsi. Hala ere, Pedro jaiki eta hilobira joan zen lasterka; makurturik, barrura begiratu eta oihalzerrendak bakarrik ikusi zituen, eta etxera itzuli zen gertatuaz harriturik.

◆.....

<sup>1</sup> Katekesi parrokialetik hartua eta egokitua, 2. gaia, 6. gaia, Jesus berpiztua betiko bizi da, 3-5 or. Gida pedagogikoa Etorri eta ikusi!